



## **2020KO DEIALDIA, 2. ERANSKINA, IKASTETXEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, ESKOLA KIROLAREN KUDEAKETARAKO ETA ARRETARAKO EGITURA ESPEZIFIKOAK SORTZEKO ETA GARATZEKO, NORGEHIAGOAKO ERREGIMENEAN.**

### **1. OINARRI ARAUTZAILEAK**

Eranskin honi aplikatuko zaizkio Tolosako ikastetxeek Eskola Kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortzeko eta garatzeko diru-laguntzak eskuratzeko ordenantza arautzaileak (2.eranskina) egindako aldaketak. Aldaketa hauek, 2018ko abenduaren 27an Udal Batzarrak egindako Osoko Bilkuran onartutakoak dira eta 2020ko urtarrilaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak.

Era berean, aplikatuko zaizkio 2017ko apirilaren 25an Udalbatzarrak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2017ko uztailaren 7an argitaratutako diru laguntzen Udal Ordenantza Orokorra.

### **2.- ONURADUNAK**

Aipatutako oinarrietan arautzen diren diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte baldintza hauek betetzen dituzten ikastetxeek, edo ikastetxeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarteek:

- Tolosako udalerrian egon behar du ikastetxeak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren irizpideekin bat datorren eskola kiroleko egitaraua diseinatu izan, non bermatuko diren neskek eta mutilek tratu eta aukera-berdintasuna izango dutela.

### **3.- ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEAK**

2020. urtean, diru-laguntza horien eskaera egiteko (inprimakia) eta harekin joan behar duen dokumentazioa aurkezteko lehen eguna izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguna, eta argitaratu denetik 20 egun naturalak pasata itxiko da epea.

Memoria eta kontu zurigarria, berriz, deialdiaren urteko **urriaren 31 bitarte** (hau barne) aurkeztu ahal izango dira.

Ezinbestekoa da eskaera (inprimaki formala) eta dokumentazio osagarriak Tolosako Udalaren erregistroan aurkeztea, erregistro telematik bidez. Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko prozedurari 2015/39 Administrazio Prozedura Arautzen duen Legearen 16.4 artikulua xedatzen duena aplikatuko zaio.

Diru-laguntza eskaera inprimakiarekin batera beharrezkoak izango dira:

- Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak, edo kontsulta hori egiteko baimena ematen duen inprimakia beteta (**Baimen klausula** inprimakia).
- Diru-laguntzak eskatzeko **Zinpeko Aitorpena** inprimakia.

### **4. KONTU ZURIKETA**

Diru-laguntza jaso aurretik kontu zuriketa aurkeztu beharko da, oinarri espezifikoetan (2. eranskinean) xedatutako dokumentuak azalduz, alegia:

- Memoriaren inprimakia ( A2-Eskola kirola), behar bezala beteta.
- Egitura bakoitzak bere ikastetxean egiten duen ikasturteko kirol eskaintza
- Kontu zurigarria (gastu eta sarreren balantzea eta fakturen zerrenda)
- Fakturak
- Klubekin sinatutako hitzarmenen kopia.
- Ikastetxeko zuzendaritzaren txostena (eta/edo guraso elkartearena, hala badagokio) justifikatuko duena zenbat ikaslek ez duten izena eman Eskola Kirola programan, edo izena emanda ere, zenbatek ezin izan duten kuota ordaindu.

Eginiko eskaeretan edo haiekin batera aurkeztutako eranskinetan akatsen bat badago, interesatuei eskatuko zaie 10 eguneko epean aurkitutako akatsak konpon ditzatela.

Dokumentazio hori, epe barruan, aurkeztu ezean, diru-laguntza jasotzeko aukera galduko du eskatzaileak. Era berean, datuak ezkutatu gero, edo datu faltsuak emanez gero, diru-laguntzak jasotzeko aukera galduko du, eta hainbat kasutan, baita



TOLOSAKO  
UDALA

ondorengo diru-laguntzak jasotzekoa ere.

Eskaeran agertzen diren datuak ez badira behar bezala egiaztatzen, ez dituzte aintzat hartuko eskaera baloratzera.

#### **5.-DIRU LAGUNTZEN BANAKETARAKO IRIZPIDEAK**

Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak oinarri espezifiko hauetan (2. eranskina) xedatutakoak dira.

#### **6.-BALORAZIO BATZORDEA**

Eskaeren balorazioa kiroletako zuzendaritzaren lan izango da; dagokion txostena egingo du, diru laguntzen banaketaren proposamena eginez. Diru laguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan

#### **7.- LAGUNTZAREN GUTXIENEN ZENBATEKOA**

Baldintza guztiak betetzen dituzten ikastetxeei, kasu guztietan, gutxienez, 1.500 €-ko diru-laguntza emango zaie. Hortik kanpo dagokion laguntza erantsiko zaie, kontuan izanik balorazioko irizpideak eta Udalaren aurrekontuetan diru-laguntza lerro honetarako urtero onartzen den laguntza osoa.

#### **8.-DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA**

Emandako diru-laguntza ikasturtea amaitzen denean ordainduko da, onuradunak justifikazirako beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu ondoren, deialdiaren urteko **uztailaren 15**erako.

#### **9.- FINANTZIAZIOA ETA AURREKONTUA**

Baimendutako gastua gehienez 23.250 eurokoa da, aurrekontuko 1000.481.01.34100 kontu-sailaren kargura.

Baremoa aplikatu aurretik, banatu beharreko zenbateko osotik 6.000 euro kenduko dira, gehienez, bai proportzionaltasun-adierazlea balioesteko ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeen artean, bai Eskola Kirolera sartzeko zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleen kostuaren % 50, gutxienez, finantzatzeko. Azken kontzeptu horrengatik laguntza emango da baldin eta ikastetxeak (edo guraso elkarteak, hala badagokio) ikasle horiei buruzko txostena aurkezten badu. Soberako diru-kopurua banatu beharreko kopurura itzuliko da.

#### **10. JAKINARAZTEA**

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearenak, bere 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

#### **11.-EBAZPENAREN EPEA**

Prozedua ebazteko epea memoriak (A2 inprimakia) eta kontu zurigarriak aurkeztu denetik sei hilabetetara izango da.

#### **12.- BALDINTZAK EZ BETETZEA**

Ondoren aipatzen diren egoeretako bat gertatuz gero, eskatzaileak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du eta laguntza ordaindu den unetik sortutako interesa ere ordaindu beharko du:

- a) Deialdi honetan ezarri diren epeak betetzen ez baditu.
- b) Diru-laguntza ematerakoan arrazoi gisa hartu zen helburua betetzen ez badu.
- c) Oinarri arautzaileak (2.eranskina) ezartzen dituen betebeharrak bat betetzen ez badu.



TOLOSAKO  
UDALA

### **13.- DIRU LAGUNTZEN ARAUDI ERREGULATZAILEA**

Deialdi hau agiri honetako oinarriek zuzenduko dute, eta hemen aurreikusten ez dena azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak.

### **ESKAERA EREDUA**

Eskaera orria, memoria eta kontu zurigarriaren inprimakiak lotura honetan eskura daitezke: [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)  
(udala atalean/tramiteak)